

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

A.O.I.A. taldea

IDEIA: Energia generatzen duen kirol-makina

Gure bezeroei kirola egitea gustatu behar zaie edo kirol zentro edo gimnasio bat eduki behar dute, horregatik etxe partikularren kasuan kirola egiten duten pertsonak dira bezeroak, baina kirol zentroak eta gimnasioen kasuetan makinak erosten dituztenak dira, hau da, kirol zentroak edo gimnasioak.

Kirol zentroak gure makinak erosten dituztenak dira, beraiek ondoren beraien bezeroei instalatu eta erabilgarriak izateko. Gure bezeroak, kirol zentroak badira, makina gehiago erosteko probabilitate handiagoa dago, etxeko edozeinek erosi baino, eta horrek beste lekuetako gendeak ezagutzak lortzen laguntzen du, horren ondorioz, beraiek gehiago erosten dutenean, gure makinak erabilgarriagoak izatea laguntzen dute.